



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2021/22 Denboraldia

21ZK.DUN ZIRKULARRA

ARETO FUTBOLEKO EUSKAL LIGARA IGOTZEKO FASEA

Areto Futboleko Euskal Batzorde honek, Batzar Nagusian denboraldi honetarako Txapelketa Oinarriari jarraiki, aipatutako Euskal Kopa hau antolatu du, honako arauak oinarri

1. KLUB PARTAIDEAK

Araba eta Bizkaia Lurralde Federakundeetako Areto Futboleko lehiaketetako bigarren sailkatuak, Bizigarri Aiara A.F. eta Artarromo Getxo CD hurrenez hurren.

2. DATA ORDUA ETA LEKUA

Getxoko Gobela polikiroldegian ekainak 11n. larunbata, 18.00 tan.

3. EPAILEAK


Dagokion erreziboaren ordainketa Areto Futboleko Epailen Euskal Batzordearen kontura burutuko da.

4. LEHIAKETA SISTEMA

Partida bakarreko kanporaketa ereduan jolastuko da, EFF-FVFko Araudi Orokorreko 102 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Partida eta gero markagailuan berdinketa egongo balitz, talde bakoitzak bost (5) penalti botako lituzke, jaurtiketa alternatiboki eginik, hau da, lehenengo penaltia talde batek eta gero bestea, horrela talde bakoitzak dagozkion hiru jaurti arte. Jaurtiketa hasi baino lehen, zein hasiko ote den jakiteko zozketa egingo da irabazlea aukeratuz nork jaurtiko duen lehen, eta ate berberaren aurrean jokalaria desberdinek jaurti beharko dituzte beraien taldeen penaltiak. Gol gehien lortzen dituen taldeak irabaziko du. Bost jaurtiketak egin eta gero berdinketak jarraituko balu, jaurtiketak ordenu berean jarraituko dute, banan-banan, eta lehen jaurtiketak egin ez dituzten beste jokalaria batzuk egin beharko dituzte jaurtiketak, jaurtiketa kopuru berdina egin eta gero, bi taldeetako batek tanto baten diferentzia lortu arte, eta honela garaile izanik.

Partida bati hasiera eman ahal izateko, talde bakoitzak joko-eremuan, eta partida jokatzeke prest, gutxienez sei jokalaria aurkeztu beharko ditu, taldeko ordezkari batez gainera.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Partidak 40 minutuko iraupena izango du 20 minutuko bi zatitan eta 5 minutuko atsedenarekin.

Zirkular honetan aurreikusten ez den orotan, indarra duten areto-futboleko jokoa-
arauetan xedatutakoa aplikatuko da.

5. ZIGORRAK

Lehiaketa honen berezitasunengatik, Ligako zigorrak ez dute efekturik izango bertan, geratuz hurrengo denboraldirako betetzeko geratuz.

Hau guztia klub lehiakide, Araba eta Bizkaia Futboleko Lurralde Federakunde eta Areto Futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoari jakinarazten zaie, bere ezagutzarako eta dagozkion ondoriotarako.

2022ko ekainak 3 Bilbon

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General